

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideen aldetik, gure ideia aurrera eramateko baliabide batzuk behar ditugu. Hasteko finantza baliabideen aldetik, ez dakigunez aplikazio bat sortzen Externalizazio baliabideak erabiliko ditugu, hau da, kanpoko enpresa bati aplikazio garatzeko eskatu, enpresa hori Couragium enpresa da. Nahiz eta guk langile bezala lan egin ez dugu gure buruari soldata bat jarriko, ondorioz kostuak murriztuko dira. Gure aplikazioak eskatzen diguten uneoro aldatzeko aukera izango dute, horrela gure bezeroen nahiak asetuta egongo dira eta horrela gure aplikazioa ez dio hobetzeari geldituko.

Giza baliabideen aldetik taldekide bakoitzaren baliabideak erabiliko ditugu ideia aurrera eramateko. Hasteko Markelen taldea kudeatzeko dituen gaitasunak erabiliko ditugu. Oihergi eta Manexen jendearekin komunikatzeko gaitasunak, hau da, jendearen eta supermerkatu handiekin komunikatzeko gaitasunak, beraien iritzia jakiteko eta Peruren salmentarako dituen gaitasunak.

Baliabide fisikoen aldetik, taldekide bakoitzaren etxeak erabiliko ditugu gure proiektuaren gauzetaz hitz egiteko eta bakoitzaren ordenagailuak ere.

Azkenik, baliabide intelektualen aldetik, gure ideia logo batekin patentatuko dugu, horrela lortuko dugu gure ideia inork ez lapurtzea.